
BADIOU eta GU



gertarazten argitalpenak



ESTALDURA PROZEDURAZ

Alain BADIOU

-I-

Oraingoan landuko dugun oinarrizko ideia gogorarazten dizuet eta da zapalkuntzaren figura oro izate edo existentziaren figura finitu bati lotuta delako ideiara laburtzen dela, alegia, guk eutsi behar diogun infinituaren perspektibarik gabekoa da. Edo, bestela esanda, hemen, emantzipazioaren arazoa edo giza aukerak askatzeko prozesua eraldatzen ari gara. Hasteko, «zapaltzaileak» eta «zapalduak» moduko hitz deskonektatu eta berezituen arteko kontraesan esplizituak ez ditugu zuzen-zuzenean antzematen. Aitzitik, aurresuposatzen duguna da zapalkuntza dakarrena, zapalkuntza bere irudi edo figura ezberdin guztietan, beti dela beldurgarria edo arriskutsua nagusientzat, nagusiek zaintzen duten ordena horren gainetik zeharo gehiegizkoa izango (edo '*eszesoan*' egongo) den zerbait azaleratzeko aukera sortuko duen neurrian. Figura zapaltzailea osatzen duena jada badagoen edo jada existitzen den ordena bera baita, hainbat funtzionarioen bidez zapalkuntzarako metodo zehatzak erabili beharko dituela aurresuposatu gabe, ordena berez baita ordena, ezer kontrakorik izan gabe ere. Aztertuko duguna, beraz, zapalkuntzaren irudi zehatz eta identifikagarri hori da. Gure abiapuntu intuitiboa da zapalkuntza agertzen dela zer edo zer agertzera ausartzen denean hura eusten edo atxikitzen duen ordenatik askatzea posible delakoan. Hartu adierazpen iraultzaile zahar baina indartsu eta onartua: "*Zapalkuntza dagoen tokian matxinada dago*". Zoritxarrez, hori ez da guztiz egia. Ez da mekanikoki egia. Aitzitik, ziurra zera da: ***matxinada dagoen tokian zapalkuntza dago***. Eta, ondorioz, ordena orokorra asaldatzen duen zerbait sortzen den lekuan, ordena horrek berehala jarri beharko ditu, beti, arrisku horren kontrako figura espezifikoak. Zehatz-mehatz, beraz, hori da hemen interesatuko zaiguna: ***Dagoen ordenak nola mugatzen du aukera antagoniko bat?***


Zuzenean aztertuko ez duguna, orduan, aipatu egitura orokorra [mekanikoa] da, ohiz aztertutako kontraesanaren figura dena, hain zuzen – dela kontraesan soziala edo edozein motako kontraesana, ez baita soilik politikara mugatzen. Ordez, hartuko dugun bidea ondorengoa da: '***Estaldura' deritzoguna zapalkuntzaren figura orokor bat da***, edozein ordena motari erreferentzia egin diezaiokeena: ordena akademikoari, zaintza artistikoari, ordena politikoari, noski, baina baita maitasunaren ordena erromantikoari ere, jelosia tartean sartzen denean (gai honera berritzuliko naiz, jelosia estaltze finituaren adibide bereziki ikusgarria eta bortitza baita, berrikuntza zientifiko arriskutsuak uxatzen saiatzen den ilunkeria bezalaxe). Dena dela, estaltzearen arrazoiak honelakoak edo bestelakoak izan daitezke, eta batzuetan ez da arrazoirik zehatzen beharrik, gehiago da kezka bat, beldur bat – dagoen ordena nagusiaren funtzionamendu arrunta nahikoa ez denean bere mugimendu propioaren ibilbide normalean egingo lukeena egiteko. Beraz zera da arretaz aztertu behar duguna: beldur edo kezka horri dagokionez, zein da jada badagoen ordena nagusiak sortzen duen baliabidea, teknika, bitartekoa, zein da zapalkuntza iraunarazteko figura singularra?

Honetaz pentsatzeko nire (lehen) hipotesia, ontologikoa, berez, eta aproposa, beraz, izateari edo izaerari pentsatzeko ondorengoa da: ***dagokigun dialektika egokia finitua eta infinituaren artekoa da***. Bere izaera edozein dela, ordena hertsi edo itxi batek, iraunarazteko asmoa du, hau da, asmoa dagoen ordena itxia dagoenetan mantentzea da, hertsiera horrekiko kualitatiboki arrotza den edozein agerpen eragoztea. Ordena hertsi hau finitutasun mota jakin baten mantentzeko jarduera gisa deskriba daiteke (finitutasuna zer den laster eztabaidatuko dugu). Hertsitasun finitu honetatik harago doan eta finitutasunaren kontzeptua bera gainditu egiten duela dirudien guztia mehatxu bat da --- ordena eman

batek bere finitutasunaren kontzeptua baitarama bere baitan eta hori transmititzen baitu. Horregatik, orokorrean, ordena horrek berea bakarrik posible dela esanez hasten da eta, ondorioz, posible izan daitekeen gainontzekoa blokeatzen du, puntu zehatz batean. Horrela, hertsipen edo itxiera hori desarautu dezakeen gainezkoa (edo *eszesoa)* dirudien guzia jada badagoen egoeraren aurkako infinitutasun arriskutsu gisa hautematen da edo, bestela esanda, posible izan daitekeen infinitutasun arriskutsu gisa ulertzen da. Ordena dagoenetan mantentzen jarraitzeko gakoa, ondorioz, infinitutasunari dagokion posibilitate hori blokeatzea da. Posible den aukeraren bat jada badagoen egoeratik harago doala edo jada badagoen egoera hori gainditzen duela somatzen bada, finitutasunaren defentsa segurtatu behar da, infinitutasunaren arriskutik finitutasuna babestu behar da. Eta, izan ere, horregatik da, azken finean, aipatu ***finituaren eta infinituaren dialektika*** interesatzen zaigula: ezaguna den zapalkuntzaren deskribapen agerikoetatik haratago (propaganda mekanismoak, poliziarenak, indarkeriarena, etab.) zapalkuntzaren figuraren muinean sartzeko, hain zuzen. Bilatzen ari garena, beraz, ordena mantentzeko bitartekoen sistema bera baino oinarrizkoagoa den azpiko logika sakona da, hau da, dagoen arautik eta normatik haratago doana eusteko ordenak benetan zapaldu nahi duena erabiltzen duen bitartekoa. Laburtuz: finitua eta infinituaren arteko dialektikara hurbiltzeko modu desberdinak dauden moduan hala daude finitutasunaren inposatzeko forma desberdinak ere.

Nire bigarren hipotesiak ***'estaldura' edo 'estaltze' hitzak erabiliz adieraziten den prozedura oso garrantzitsu batekin zerikusia du***. Estalduraren prozedura, maila orokorrenean, infinitu berri baten balizko agerpena neutralizatzeko saiakera da, dagoen ordenan aurretik jada badauden esanahiez estaliz, kubrituz edo tapatuz. Bestela esanda, jada badagoen ordena eta normaren egoeraren barnean dagoeneko emanak dauden esanahien erabilera infinitu posible berri baten garapena oztopatzeko edo debekatzeko da. Hori batetik. Baina baita, bestetik, infinitu horren bere barneko esanahia edo infinitu berri horren zentzu inmanentea eta gehiegiko edo *eszesiboa* dena desantolatzeko ere. Kontua ez baita bakarrik infinitu posible berria kanpotik deuseztea; ezta ez dela gertatu edo ezer ez dela gertatu esatea ere. Kontua, are gehiago, zerbait berri horrek bere buruari ematen dion esanahia ezer ez dela, ez dela existitzen, baieztatzea da.

Hain zuzen ere, posible da egoera hori zapalkuntzaren beraren arabera aztertzea: nolabait hori baita estaltzea, berritasun horren izenean esan eta egiten den guztiaren gainetik, multzo horren gainetik poltsa bat-edo jartzea bezala. Gakoa berritasuna zaharrak diren esanahiekin estaltzea baita, jada badagoen egoeraren barneari dagozkien esanahi orokorrean estereotipatuekin gertaberriaren ulergarritasuna bera estaltzeko eta desegiteko asmoarekin. Hainbat non, berritasun horretan parte hartzen dutenek ere egiten dutena benetan esaten dutenarekin lotuta dagoen ala ez zalantzan ezartzeraino. Hots, estaldura prozeduraren azken helburua berritasunaren eragileen berezko desmoralizazioa da, artifizio ugariren bitartez berria dela uste dutena benetan zaharra dela adieraztea, eta ez bakarrik zaharra, baita kaltegarria ere etab. Hori da estaltzearen funtzionamendu orokorra. Zerbait estaltzeko, aurretik existitzen diren zerbait horren etorreraren, gorakadaren edo agerpenen instantziak ezabatu behar dira zerbait berri horretan azalerazten diren esanahiak gainetik tapatuz edo kubrituz. Eta, izan ere, horrela da matxinadaren edo infinituaren figura berrien intentsitate aitzindaria akabatzen dela; eta horregatik da, hain zuzen, estaltze kontu hau oso garrantzitsua delamantentzen dudala, uste baitut giza sorkuntzaren esparru bizienetan gehien gauzatzen den zapalkuntza modurik etengabeena dela. Eta horregatik azpimarratzen dut, baita ere, ez duela bakarrik berritasun edo haustura berriaren izaki mehatxatzailea desagerrarazi nahi; modu sakonago batean, azken helburua berritasun edo haustura hori behin betiko ulertezina bihurtzea dela baizik; hau da, asmoa berritasunaren zentzuarekin eta esanahiarekin berarekin akabatzea da. Estalduraren bidez, zentzugabekotasunaren edo, gehiago, paradoxalki, ezinezkotasunaren figura da sartu nahi dena, inposiblearena, hain zuzen, non eta bestela, jada, posible bezala irudikatu den berritasun horretan bertan.



1. Aipamena*: finitua eta infinituaren arteko dialektikara hurbiltzeko modu desberdinak dauden moduan hala daude finitutasunaren inposatzeko forma desberdinak ere... Estalduraren prozedura, maila orokorrenean, infinitu berri baten balizko agerpena neutralizatzeko saiakera da, dagoen ordenan aurretik jada badauden esanahiez estaliz, kubrituz edo tapatuz... Gakoa berritasuna zaharrak diren esanahiekin estaltzea baita...Estaldura prozeduraren azken helburua berritasunaren eragileen berezko desmoralizazioa da.*

Jarraian ematen ditudan hiru adibide politikoak, Iraultza Frantsesa (eta Robespierre gaiztoa), Txinako Iraultza Kulturala (eta Mao oportunista), eta 68ko Maiatza (eta askapen sexual liluragarria), tipikoak dira estalduraren prozedura argitzeko. Ohargarria

izango denez, benetan gertatutakoaren gainean esanahi parasito bat eransten da benetan gertatu zena tapatzeko, hainbat non benetan jokoan zegoena ez baita jada deszifragarria edo irakurgarria – eta ez bakarrik etorkizunean, noski, baita estalia izan den gauza horretan bertan parte zuzena hartu zuten batzuen gainean ere. Hiru kasu hauetan, etorkizunaren ikuspuntutik, estaldurak berak zerbait iluna eta antzemanezina eratu du. Eta hori egin du gertatutakoa nahasia eta indargabetua dagoela adierazteko, aurreko egoeretatik datozen operazio ezberdinen bidez. Hausturaren osagaia zirudiena, irekiera berri edo inaugurazio baten momentua zirudiena, berritasunaren eta sorkuntzaren osagaia zirudiena, hain justu, itota, baliogabetua eta izengabetua agertzen da – ez zerbait gertatu zela ukatuz, gertatutakoa beste zerbaitekin ordezkatuz baizik. Ondorioz, itxaropenaren edo berritasunaren infinitutasunez blai zegoen bere aktoreen benetako bizitzan gertatu zena ez da berdina benetan gertatutakoa estali eta gero, eta kondaira ilun bat sortzen da, erretrospektiboki, jada badagoen ordena hertsiarekiko egoera finitua amaitzeko zorian zirudien puntuan bertan. Estaldurak, hain justu, formarik gabeko zirriborro moduko bat agerrarazten baitu benetan gertatutakoa ezeztatuz baino estaliz hutsala bezainbat higuingarria izan zen zerbait bezala zirriborratuz. Eta eragiketa edo operazio hori guztiz ezinbestekoa da, historia kolektiboaren maila guztietan, baita historia pertsonal, artistiko edo zientifikoan ere, esanahien borroka antolatzen baitu eta ez errealitatearen inguruko borroka soilik. Kondaira historiko eta oroitzapen desberdinak sortzen ditu. Azken batean, gertatutakoaren esanahi historikoa kalifikatzen, zehazten edo aldatzen du eta, Ikuspegi horretatik, estalduraren operazioa epe luze(ra)koa da. Ez da gaur egungo figuraren bat zapaltzen dizutenen modukoa eta gero denek esaten dutenean, ‘o suntsitu egin dute’. Ez, aitzitik, estaldura denboran injektatutako pozoi modukoa da. ***Estaldurak gertatutakoa ezabatu baino gehiago egiten du. Desitxuratu egiten du, ezagutezina bihurtzeraino.*** Eta hori are biziagoa da, desitxuratua izan dena gero benetan gertatu izan balitz bezala mantentzen baita. Nahiz eta benetan gertatutakoa guztiz ezberdina den zerbait bihurtu.

Hona hemen aipatu adibideen azalpenak:

• Frantziako Iraultza (1792-1794) ondorio posibleen artean potentzial infinitua duen gertakizun politiko bat platitude negatiboen bidez ohiz estali izan dena. Hartu, bestela, Frantziako Iraultzaren alderdirik bizienа, benetako prozesu berdinzalea infinituraino ireki zuena baina berehala estali zena odolzale mindua omen zen Robespierre «munstro hotz» harako haren ekintzen inguruan zabaldutako arrunkeriez. Thermidorreko kolpean parte hartzaileek, “thermidoriarrek”, lur jabeen eta ustelduen diktadura berrekarri zuten estaldura horretaz baliatuz ---gaur egun ere alde guztietako erreakzionarioek erabiltzen dutena.

• Antzeko eran, Txinako Iraultza Kulturala (1965-1968) aurrekaririk gabeko saiakera izan zen, hezurtze bidean zegoen Estatu sozialista baten espazioan, benetako mugimendu komunista berrabiarazteko ikasle eta langileen esku-hartze masibo eta zuzen baten bidez. Baina finituaren adituek, txinatar zein mendebaldekoek, azkar asko definitu zuten Maoren manipulazio desesperatua balitz bezala bere akatsengatik galdu zuen boterea berreskuratzeko asmo bakarrarekin eta bidean indarkeria onartezina baimenduz.

• 68ko Maiatzaz eta Frantzian izan zituen ondorioez esandakoak ere hor daude: 2.Mundu Gerraz geroztik Mendebaldeko Europako masa mugimendurik handiena, greban zeuden ikasle eta langile iraultzaileeentzat prozesu politiko amankomun baten aukera lehen aldiz ireki zuena, dardara anarkista txiki bat bezala definituko da, tartean “askapen sexuala” guztiz fikziozko diskurtso iraultzaile batean enpaketatuz.



Aipamena***:*** ***Estaldurak, hain justu, formarik gabeko zirriborro moduko bat agerrarazten baitu benetan gertatutakoa ezeztatuz baino estaliz hutsala bezainbat higuingarria izan zen zerbait bezala zirriborratuz. Eta eragiketa edo operazio hori guztiz ezinbestekoa da, historia kolektiboaren maila guztietan, baita historia pertsonal, artistiko edo zientifikoan ere, esanahien borroka antolatzen baitu eta ez errealitatearen inguruko borroka soilik. Kondaira historiko eta oroitzapen desberdinak sortzen ditu. Azken batean, gertatutakoaren esanahi historikoa kalifikatzen, zehazten edo aldatzen du eta, Ikuspegi horretatik, estalduraren operazioa epe luze(ra)koa da.***

Estaldura finituekin potentzial infinitua suntsitzeko antzeko operazioak beste egiaren prozedura guztietan aurki daitezke, maitasunean, artean, zientzian... eta, beraz, ***zuen inguruko historian, nola kolektiboan halaxe pertsonalean, arakatzeko ariketa proposatzen dizuet***. Gaiaren beste aldaera bat hartzeko, adibidez, maitasunaren esparruan estalduraren eragiketak nolakoak diren aztertu nahiko nuke orain. Gakoa, hemen, da maitasuna nola ulertu, maitasunaren beraren existentziari buruzko ziurgabetasun etengabea nola jasan daitekeen. Estaldurak maitasuna barrutik kanpora biztantzen baitu, iluntasun immanente baten figuraren bidez barrutik minbizi bat bezala inbaditzen du, pixkanaka.. Eta Marcel Proustek bikain deskribatu zuen bezala, inbasio horren figurarik osatuena jelosia da.

Proust gizakien arteko estalduraren gai honi buruzko idazle bikaina da eta sobera ondo erakusten du jelosiak bestearen existentzia baino lehenagoko zaintza sare moduko bat-edo nola ezartzen edo inposatzen duen. Jelosiak denbora murrizten du, jarraikortasun posiblerik egon ez dadin. Maitasunaren mugimendu orokorrean finitutasun iraunkorra adierazten duena susmoa da, eta, beraz, estaldurarekin gauzatzen den zatiketak maitasuna blokeatzen du — berez, jada badagoen autoritatearen alde finitutasunak pribilegiatzen duen neurrietako bat besterik ez dena. Horregatik, Prousten liburuko kapituluetako baten izena *Presoa* da. Maitasuna existentziaren figura berri baten garapen bizia *à deux* izan beharrean, hertsipena bilakatzen da, itxiera giltzapetua, alegia, edo kartzela, non, jelosiaren ikuspuntutik, azken finean axola duen bakarra ez baita bestea, bestearen bestea baizik. Jelosiaren obsesioa zaintza da; baina une bakoitzean maitasuna mehatxatzen eta arriskuan jartzen duena bestearen bestea da. Ba al dago bestearen besteren bat? Hara hor lehentasun nagusia bihurtzen den kezka. Bestearen beste horren alteritate atzemanezina da, bestearen beldur bihurtu dena, hain zuzen, maitasuna blokeatzen, itotzen edo pozoitzen duena. Ohargarria, hemen, estalkia bera kanpokoa ez dela da. Maitasunaren barrutik funtzionatzen du, inposatzen duen zatiketa moduko baten gisan.

-II-

Orain zera galdetu behar dugu: zein da estaltze operazio hauen azpiegitura logikoa? Zer da benetan estaldura, alde metaforikotik harago? Zein baldintza behar dira estalduratik ihes egiteko? Zein baldintza dira beharrezkoak finituaren diktadura horrek hartzen duen formari aurre egiteko, zeinak sortu den aukera infinituaren gainean beste esanahi bat ezarriz funtzionatzen baitu, finitutasunaren zatiak erantsiz? Estaldurari nola egin diezaiokegu aurre eta aurka benetako infinitu berri baten agerpena baimentzeko edo baimenduta egon dadin?

Hasteko jakin behar duguna da "finitu" hitzaz zer ulertuko den, zehatz-mehatz, estaldurak infinitu berri batek askatzeko bide den zerbaiten gainean finitutasuna erantsiz funtzionatzen baitu. ***"Finitua" zer den jakin behar dugu,*** eta, hemen, intuizioak ez ez digu mesederik egiten, besteak beste, Ikusiko dugunez, infinitutzat agertzen diren gauzak finituak izan baitaitezke estalduraren ikuspuntutik, jatorriaren, esanahiaren, egoeraren eta abarren araberakoak diren neurrian.

Abiapuntua, hortaz, hau da: Edozein ***multzo finitua*** izango da (deituko dugu) bere elementuak lehendik dagoen (edo aurre-existitzen dion) beste multzo batean **zati definigarri** gisa agertzen diren multiplizitateak bakarrik direnean.

Izan bedi E multzoa eta izan bedi argi definitutako P propietate bat --- E elementu batek P propietatea edukitzeak zer esan nahi duenaz jakinaren gainean gaudela asumituz. Beraz, P propietatea duten E elementuen multzoak zati definigarri bat osatzen du. P propietatea duten E elementuen multzoak, horrela, E horren zati definigarria osatzen du. P propietateak zati hau definitzen du.


Mundua, bere forma abstraktuenean, gauza horiei buruzko gauzez eta predikatuz osatuta dago. Badago existitzen den gauzen multzo bat (E), eta gero predikatu bat edo propietate bat dago (P). 'Definigarria' hitza propietate hori duten multzoko elementu guztiei aplikatzen zaie. P-k definitutako azpimultzoa da, P propietatea duena. Modu honetan, korrelazio definigarri bat dago jada existitzen den egoeraren lengoaia nagusiaren eta propietateen bidez lengoaia honekin lotuta dauden gauzetako elementuen artean.

Multzo baten zati definigarria, beraz, multzo honen testuinguruan lengoaia nagusiaren parte den zati bat da. ***Lengoaia nagusia denok ezagutzen ditugun eta mundu kontserbadorearen zati bat osatzen duten ongi errotutako propietateez osatua dago.*** Zati definigarria zati definitu batek argiro osatzen duen zatia da, hau da, P propietatea duen elementu multzo batez osatua dago.

Lengoaia gauzekin lotzen duen operazio edo eragiketa hau estaltze-operazio ororen oinarria da (lengoaia nagusia gauzei lotuta zentzurik abstraktuenean, hau da, berezkoa den gauzen aniztasunari edo multiplizitateari bere horretan lotuta). Ordena hertsiaren muga gainditzeko edozein arriskuren aurrean [gezia --->] arrisku hori P propietatezko gauzek estaliko dute sistematikoki, hau da, lengoaia nagusiak jada korapilatuta edo lotuta dituen gauzez, guztiz ezagunak, hutsalak eta arruntak diren gauzez estaliko dute arriskua, besterik gabe, mundu osoak ezagutzen duen propietate bat dutelako dagoeneko.

Prozedurak honela funtzionatzen du: Demagun zerbait mehatxagarria dagoela, jada badagoen mundu finituaren hesia gainditzeko eta aldatzeko altxatzen den zerbait dagoela, alegia, infinituak suposatzen duen arrisku berri bat. Estaltzeko prozeduraren betebeharra gauza berri hori, aldarrikatzen duenaren kontra, jada badagoen mundutik kanpo ez dagoela erakustea izango da, estalkiak osatzen dituen zati definigarriak gainetik erantsiz eta tapatuz. Ustezko ez-ezaguna den berritasun hori zati definigarriek estaliko dute, eta, beraz, erabat blokeatuta suertatuko da, definitu daitezkeen zatiak


edo zati definigarriak, jakina, denok ezagutzen ditugulako. Esaterako, Robespierre sistema politikoan berdintasunaren figura sartzen saiatu zen iraultzaile gisa antzeman beharrean, «abenturazale», «oportunista» eta «odol-egarri» «mingots» gisa ikusiko da, hau da, Robespierren figura jada badagoen munduko edo jada den bezalako munduan denok ezagutzen eta identifikatzen ditugun zehaztapen edo determinazioen bidez antzemango da.



1. Irudia*: Ezkerreko aldean E multzo eraikigarria irudikatzen du P propietateak definitutako elementuen multzoarekin. Erdiko lerroak ordena itxiaren langa (hesia, muga) irudikatzen du, infinitu berriak gainditzea mehatxatzen duena. Matxinada, sorkuntza eta abar hauek muga zeharkatzen edo gainditzen duen geziaren bidez irudikatzen da. Infinitu berria puntudun zirkulu baten bidez adierazten da, bere generikotasuna eta "eraikigarritasun-eza" adierazteko. L lengoaia nagusia da, dagokigun testuinguruan 'hizkuntza' baino zuzenagoa eta adierazgarria dena.*

Kasu guztietan, dagoen ordenaren hesia gainditzen duen infinitu (∞) definiezinaren mehatxutik gainetik P propietate ezaguna duten elementuen multzo bat itsatsiko da. Hori da estaltzearen funtzionamendurako oinarrizko baliabidea. Estaltzearen gibelean teoria bat dago zeinaren arabera jada badagoenak lengoaia jada guztiz dokumentatuari men egiten dio, erabat. Baliabidea definitu daitezkeen zatiak dira, dagoen egoeran eta ordenan bere izen eta propietate emanak dituzten zatiak, eta propietate horiei ezerk ez die ihes egiten. Horri guziari jada badagoen egoeran "arrunta" deitzen zaio, kontsentsuzko gauza adostuez-edo osatutakoa dena, denok partekatzen omen ditugunak, «Frantziako baloreak» eta horrelakoak bezalakoak, horrelako gauzak, jada eratutako edo ezarritako lengoaiari lotuta dauden izendapenak diren neurrian. Gauzak beren izenari eta propietateekin atxikitzeko modu arrunt hori da, gero, berritasunaren mugimendu transgresiboa estaltzeko erabiliko den gainekoa — hala nola, demagun, estatuaren botereko lengoaia, ekintza zein determinazio edo zehaztapen nagusiarena eta abar.

Esan dudan bezala, prozedura hauek etengabe erabiltzen diren adibideak aurkitzea zuen kabuz praktikatu dezakezue. Adibidez, gure arteko hainbat liskar edo auzietan beti ari gara besteari zer edo zer egozteko prozesuan, norberak ondo zehaztutako propietatetzat jotzen dituenekin besteek esaten duten guztia estali nahian: "hori diozu, baina, benetan, jakina da...". Zapalkuntzaren figura, berdin, horrela eratzen da — zeinak, bada, zenbat arrunkeria zirkulatzen duen ere azaltzen baitigu gure arteko liskarretan, eta zergatik gure arteko argudioen inguruko berriketa asko, oro har, zentzurik gabeko berritxukeria luzeak besterik ez diren, hain zuzen.



2. irudia: ***Estaltdura prozedura edo estaltze operazioaren funtzionamendua: Propietate P(x) multzoan E elementuen zati definigarria (ezaguna), infinitu (∞) emergentearen multzo generikoa estaltzeko mobilizatzen da. Honek abstraktuan adierazten du nola aurretik existitzen diren esanahiak berritasuna tapatzeko gainean ezartzen diren, lengoaia nagusiarekin estaliz.***

Laburtuz, ***edozein asmakuntza edo berrikuntza zapaldu egiten da dagoen eta partekatzen dugun egoeran batek modu oldarkorrean jada eratuta dagoenaz baliatzen denean***. Estaldurarena etengabe eskuragarri dagoen prozedura da, nahikoa baita dagoen egoerari atxikitzea – dagoen betiko egoerara atxikitzea, hain zuzen, estaltzeko erabiltzen diren piezak, oinarri-oinarrian, nonahi zirkulatzen dutenak baitira eta kontua baita gauza hauek zer direnaz larregi hitz egin gabe gogora daitezkeela. Ondorioz, hemen benetan inportanteena dena zera da, alegia, gauza hauek guziak aldez aurretik guztiz saturatuta daudela, erabili lengoaia nagusiaren ikuspuntutik; hau da: "Frantzia" esaten badugu, denok dakigu zer esan nahi duen; bakarrik, baina, ez dela guztiz horrela, alegia inork ez dakiela "Frantzia" zinez eta benetan zer den, zehazki. Alta, benetako arazoa, hemen, ez da ezagutzea edo jakitea; benetako arazoa edo kontua da, ustezko gauzaren, Frantzia, eta izenaren artean dagoena, egon, benetako hertsipen edo blokeo bat dela, hain zuzen, piska bat haratago edo urrunago joatea proposatzera ere baimenduko ez duena. **Gauzaren eta bere izenaren arteko korapiloak berez funtzionatzen baitu eta korapilo horrekin zerikusirik ez duen egoera berri bat sortu nahiz gero lotura hori, inork berez ez dakien baina denok onartutako-edo gauzaren eta bere izenaren arteko korapiloa izango da gainetik itsatsiko dena, egoera berri**

posible hori gainetik betiko esanahi onartuez-edo estaltzen edo tapatzen saiatuz.

Hurbilagotik begiratuz gero, baina, arazoa, edo kontua pixka bat korapilatsuagoa dela ohartzen gara, "propietatea" hitza bera [jabetza baino ezaugarri bezala ulertuta] hitz ekibokoa baita, zinez. Propietatea ez da oso hitz sinplea eta, beraz, adibide bat jarri dizuet, Frantziarena, non, definigarria denaz egina dela esaten badugu, definiezina den entitate batekin amaitzen dugun, zeina, hala ere, guztiz eta ezin hobeto definituta dagoen. Bestela esanda, hori ***ezinezko puntua*** *da edo* ***puntu inposiblea*** balitz bezala izendatu daiteke. Ezinezko puntu bat guztiz definigarria den zerbait da, baina definiezina den beste zerbaitekin zigilatuta dagoena. Eta, hemen, susmagarriak izan beharko genuke kontraesanaren tranpak saihestu nahi baditugu. Herria zapaldu nahi duenak berak ere estalduraren prozedura erabiltzen baitu zer eta berak kontatzen duenaren gainean, kontraesan esplizitu bat saihesten saiatuz. Nahiz eta hori ezin du beti lortu eta batzuetan bera da, zapaltzailea, hain zuzen, tranpan erortzen dena. Hau argitzeko,, adibidez, puntuan Manuel Valls Estatu buruak [Islamismoaren eta terrorismoaren kontrako gerraren testuinguruan] esan zuena oso intrigagarria iruditu zitzaidan: "ulertzen hastea justifikatzen hastea esan nahi du, ezinbestean".

Hau berez da, izan, adierazpen filosofiko nabarmena. Baina zer da adierazpen honek estaltzen duena edo estaltzen saiatzen dena, gertatutako [Charlie Hebdo aldizkari satirikoaren kontra] eraso islamistaren uletzea bera ez bada? Topiko ezagun bat hartzen du, hots: 'zerbait izugarria gertatzen denean, premiazkoa da ez ulertzea' (jende askok horrela pentsatzen du, beharbada denok egiten dugu hori momentu jakin batzuetan) eta kontraesan hutsaren mugan dagoen adierazpen batera eramaten du: arrazoia fanatismoari, sekularismoa erlijioari, bakea indarkeriari, etab. kontrajartzen saiatzen bazara, gero ezin da oposizio horietan oinarritu norberak kontrakoa ez ulertzeko --- arrazoiaren ezinbestekoa, adibidez, arrazoi politikoarena barne, gertatutakoa ulertzea bailta etab. Ondorioz, gauzen eraikuntza guztiz arrazoizkoa aldarrikatu beharko genuke, agerikoa den estaltze nahi soil horretan harrapatu nahi zaituzten une berean estalduraren prozedurak porrot egin dezan. Alde batetik, higuingarria den zerbaitek gure balioak zapaldu dituela esaten bada eta, bestetik jendeari hori ulertzea debekatzen bazaio definigarria denaren eta ez denaren artean kokatuz, nola definitu daiteke gertatu dena definitu ere ezin dela deklaratu izan denean?

Estaltze operazio hauek, baita beren hutsalkeria propagandistikoan ere, nolabaiteko koherentzia zabaltzeko erabiltzen dira. Eta, horregatik, operazio horiek ulertzeko, kasu guztietan, estalduraren kontzeptu orokorra guztiz ulergarria nola bilakatzen den ikusten saiatu behar dugu.

-III-

Horretarako, orain, estalduraren kontzeptu orokorra ulergarria nola bilakatzen den ikusten saiatze aldera, ***halabeharrezkoa da «propietate» hitzari definizio zorrotza ematea***. Estalduraren operazioak beren azpiegitura formalean ulertzeko, gure lengoaia formalizatu behar dugu. Horregatik da, eta ez nolabaiteko obsesioagatik, estaltduraren teoria osoa teoria matematikoa dela, fokua 'propietate' hitzean guztiz zentratuta baitago, guztiz, propietate hitzaren esanahia ahalik eta zorrotzen argitze aldera.

Nozio gisa, ***propietatea definigarria denarekin lotuta dago,*** eta, beraz, estaltze operazioan baliozkoa edo komenigarria zaionarekin lotuta dago, hots, propietate definigarria gauzen eta lengoaiaren arteko hertsipena edo blokeoa dakarrena da. Eta horregatik da propietate nozioari zentzu zehatza eta finkoa eman behar zaiola — jada badagoen egoeraren gainetik egoera hori potentzialki gainditzen duen zerbait proposatzen dugunean, aurkariek, hau da, nagusien aldekoek proposamen berri horiek estaltzen saiatzeko erabiltzen dituzten eragiketa edo operazio formalak bere oinarrian, eta abstraktuan, ulertu behar direlako.

Noski, inork ez dio horri aurre egin nahi eta izugarri neketsua dela aitortu behar da. Baina hauek dira pentsamenduaren beharrezko gauza aspergarriak. Nolanahi ere, ezin dugu jakin gabe aurrera jo --- hori dagokigun benetako jardueraren beste erdi-estaldura bat izango litzateke-eta… Alta, lan hori egina dugula aurresuposatuko dugu lengoaia formalki zorrotza eskura dugunean, soilik eta bakarrik. Honez gero zera da jada badakiguna: badakigu ***propietate*** bat zer den eta badakigu ***definigarria*** zer den, hau da, ***ondo definitutako propietateekin edo ezaugarriekin emandako elementuez edo osagaiez osatutako multzoez*** ari gara. Hortik abiatuta, orain aipatuko ditudan lau (4) puntu tratatuko ditugu. estrategia oso baten testuinguruan:

-III-1: ***"Finitutasunez markatutako multzoa"-***ren definizioa finituaren kontzeptu partikular bat da. Izan ere, finitutasuna [edo dagoen egoerara mugatzen eta mugatua dena] jokoan dagoen finitutasun prozeduraren baitan bertan ulergarria da, soilik eta bakarrik. Finitutasuna ez da prozesu eman batetik independentea den helburu bat. Hemen, zerbait finitua dela zera esan nahi du: ***finitutasuna estaltzeko erabil daitekeena da***. Finitua dagoen ordenari transgresioaren aldeko berritasun baten agerpena estaltzeko, identifika-ezina bilakarazi eta, azken finean, ulertezin

bihurtzeko balio dion guzia da — ***finitua infinitutzat imajina daitekeen zerbaiten estaldura da***.

-III-2: ***Alternatiba baten bila*** gabiltzanontzat ondorengoa oso deigarria da: ***beharbada ezin dugu saihestu den-dena finitua dela***; hau da, ordenaren defendatzaileek arrazoia dutela eta zuzen dabiltzala finitutasunari esleitutako edo dagokion ordenakoa ez den guzia, hain zuzen, ezinezkoa eta in-existentea, are arriskutsua dela diotenean. Ondorioz, are gehiago, ezin da, ezta ere, zapaltzaileen doktrina bera jasanezina denik frogatu. Eta horrek esan nahi du, zentzu jakin batean, dena bere kabuz eroriko dela pentsatzeari utzi behar diogula. Marxekin, zer esanik ez, zalantza bat dago puntu honetan: batzuetan ematen baitu Historia norabide egokian dabilela, menderakuntza-sistema bera kolapsorantz bideratua dagoen heinean; eta. beste batzuetan, bereziki *Internazionala* eraikitze lanetan arduratu zenean, beste doinu bat abesten baitu, non eta, esan gabe badoa ere, erabiltzen dituen konplikazio, bira eta abarrekin berezko kolapso hori oso zaila baitirudi. Hemen puntu garrantzitsuena ondorengo hau da: ***ezin da frogatu estalduraz baliatzen dena oker dabilenik***, alegia, "gauza hori infinitu berri bat dela uste duzu baina nik jada existitzen denarekin, nire agindutik ateratakoarekin azalduko (estaliko) dut" aditzera-edo ematen dizutenean ezin da frogatu hori dionak oker dabilenik. Baina, beste aldera, ezin da frogatu, ezta ere, zu zeu oker zaudenik. Alegia, estali ezin den zerbait badagoela aurresuposatzen baduzu, edo estali ezin den infinitutasun bat badagoela, edo estali ezin den benetako infinitu bat badagoela, hori ere ezin da ezeztatu. Eta horri ***funtsezko alternatiba baten aurkikuntza*** deitzen diot nik. Oinarri-oinarrian, arazo honen parean dugun jarrera ezin delako gure posizioaren balioa frogatzetik sortu. Noizbait, aukeraketa bat egin behar da. ***Noizbait aukeratu egin behar da***. Arrazoizko pentsamendu oro oinarrizko aukera batena da. Hori bazter-ezina da. Nahiz eta gero ezin da esan demostrazio arrazional baten bidez aukeratutako posizioa egiazkoa, egokia eta, azken finean, garailea izango dela sinetsita zaudenik. Hori ezin da egin, ez estalduraren teoria den muturreko abstrakzioaren mailan. Ezta, baina, kontrakoa ere, ezin baita frogatu, alegia, arerioaren posizioa nahitaez garaile suertatuko denik.


-III-3: Arrazoizko erakustaldi zorrotz baten bidez soilik sostengatu ezin denez, zein baldintzetan eutsi diezaiokezu zure infinituaren aldeko posizioari? Eta hemen geratzen dena, beraz, ***aukera egitea da*** esatera laburtzen bada, ***zer esan nahi du "aukera"***?

-III-4: ***Oinarrizko etika*** deitzen dudanak hau guztia laburbiltzen du. Oinarriko etika Ongiaren alde hartu beharreko konpromisoa da, norberak ulertzen duenaren arabera – hau da, tesi baten alde zaude eta ez dago inor zure Egia estaltzeko gauza denik. Ondoren, puntu edo sail hauek banan-banan aztertuko ditut .

-III-1

Zer da ***"finitutasunez markatutako multzoa"***? ***Eraikigarria*** den multzoa da, ***definigarriak*** diren piezekin soilik fabrikatzen den multzoa, hain zuzen. Elkarri itsatsitako pieza edo zatiak osatzen duten multzoa da, pieza horiek guztiak definigarriak diren heinean, lengoaia formalizatuak edo lengoaia nagusiak agindutako zentzu hertsian. Are gehiago, ***"finitutasunez markatutako multzoa", ez da nozio kuantitatiboa***. Estalduraren operazioarentzat, kontua ez baita txiki ala handi izatea. Kontatzen duena bere osaera edo izaera da, alegia, jada badagoen edo existitzen den norma nagusiaren barruan eraikigarria denari dagokiola kontatzen du, soilik eta bakarrik, hori baita estaldura ororen benetako materiala, ez handia ala txikia den. Benetan kontatzen duen bakarra multzoa gauza definigarriez osatua dagoen aniztasunarena izatea da, oso-osorik eta bakar-bakarrik, multzoaren osaeran edo izaeran berez definigarriak diren gauzak daudela soilik, hain zuzen. Definigarria dena, beraz, multzoan jada badauden zati finituen arabera definitzen da.

Baina ikus dezagun nola eraikitzen den multzo finitu bat, "multzo eraikigarria" deituko duguna [*3. irudia, ezkerraldean*]. Eraikuntza hau bata bestearen ondoz ondoko fase edo etapetan egiten da. Dema-gun multzo eraikigarri batzuk ditugula. Multzo horien barnean defini daitekeen zati bat dago [*gizatutako zirkuluak*] eta multzo eraikigarri berria aurreko multzoen zati definigarritik osatuko da. Etapa guzti-etan, multzo eraikigarriak aurreko etapan definigarria dena baino ez du gordetzen: definigarriak diren gauzez osatuta dago eta ez dago definigarria ezin izan daitekeen ezer ez.



3. Irudia: Oinarrizko bi aukerak. Ezkerrean, eraikigarritasunaren axioma *onartuz, multzo "berriak" aurreko multzoen propietateetatik eraikitzen dira, dena definigarria da, etab. Eskuinean, eraikigarritasun ezaren axioma onartuz, multzo generikoa ahalik eta gehien konprometitzen da eta munduaren itxieraren hesia gainditzen da. Estaltzeko operazioak infinitu berriaren gainean lehendik zeuden esanahiak gainetik tapatzeko saiakerak jarraitzen du.*

Definigarria den honi buruzko puntu hau oso interesgarria da gure munduaren azterketa orokor baterako. Eraikigarria prozesu ordenatu eta hierarkikoa da. Doktrina erradikalenean, abiapuntua hutsunea da. Hutsean definitu daitekeen ezer ez dagoenez (ez dagoelako ezer, ezer ez definitu daitekeenik) multzoa 'huts' gisa markatzen da: ***multzo hutsa***. «Huts» hori multzoa osatzen duen elementu bakarra da, hots, Bat-a da. Ondoren, aurrera egin ahala, gero eta sorta zabalagoa irekiko da, baina etapa bakoitzean multzo eraikigarri berriak izango dira soilik, aurreko aniztasun definigarrietatik abiatzen den lengoaia formal batean definitu daitezkeen gauzez osaturiko multzo eraikigarri berriak, besterik ez. Konplexutasun handietara mailaka iritsi gaitezke, eta une jakin batean, multzo eraikigarri infinitu batera iritsi gaitezke, baita ere. Esan bezala, beraz, 'finitua', ez da handi edo txiki gisa definitzen, bere barne-egituraren arabera baizik, dagoen lengoaia nagusiari men egitearekin batera doana. Zentzu honetan, esan daiteke lengoaia nagusiaren bidez, barne-egitura finitua bera itxia edo hertsia dagoela, halaber.

"Eraikigarria" hitzarekin hemen ulertzen dena, horrela, garai batean ***"ideologikoa"*** bezala ulertzen zen kategoria da, lehendik lengoaia nagusiaren menpe dauden gauzak baino ez baititu existitzera onartzen. Gauzak horrela, onartezina da zerbait definiezina suerta daitekeenik. Hemen finitutasuna otzana denari finitutasuna dela esan nahi du, finitutasun sumisoa, hain zuzen. Muga bat da, hezi bat, definiezina edo zehaztezina dena onartezina baita. Baina definigarria dena soilik onartzen bada, horrek esan nahi du, ikuspuntu jakin batetik onartzen den gauza bakarra munduak lehendik jada badakiena dela soilik, lehendik jada edo aurretik jada izendatutakoa, egituratutakoa, praktikan jarritakoa eta abar. Hori da ideologia nagusi edo dominante baten egitura, zeinaren helburua dagoen sistemaren kontserbazio orokorra baita. Onartzen dituen eragiketak edo operazioak jada definigarria denaren gainean egindakoak dira bakarrik, gauza definigarriak izendatzeko eta hierarkizatzeko, dagoen ordenak erabiltzen duen lengoaiaren bidez. Multzo eraikigarriak, bada, prozedura zapaltzaileetan, eta bereziki estaltze-prozedura zapaltzaileetan, erabiltzen diren material guztien forma orokorra dira.

Ondorioz, ***eraikigarritasunaren ikusbide hau, 'ideologia dominantea' nozioarekin adierazi nahi dena baino sofistikatuagoa da***, dagoen ordenaren barnean den-dena estaltzeko gai diren sareez osatua dagoelako – dagoen ordenaren barnean ezer ez baita onartuko benetan jada existitzen dena ez bada, dagoeneko finkatutako gauza bat ez bada jada badagoen egitura definigarrian. Horrek, baina, ez du esan nahi gauza berriak agertuko ez direnik! Beti gehitu daiteke etapa bat. Baina etapa berrian aurreko etapatik jada zehaztuta dagoen zerbait baino ez da egongo. Eta hori «berria» izango da, soilik eta bakarrik, jadanik definigarria dena beste modu batean konbinatzen duen heinean, hau da: ez da berria izango definigarria ez den zentzuan.


Ohargarria denez, hemen, ordena nagusiaren automorfia moduko bat-edo dago, jada badagoen multiplizitatearen edo jada existitzen den aniztasunaren parte diren gauzei ematen zaizkien izenen arteko erlazioaren ikuspuntutik, automatikoki lengoaia menderatzailearen babespean mantenduko baita, lengoaia nagusi horretara murriztu ezin daitekeen ezer ez erakusten utzi gabe. Edo, bestela esanda: ez da ***izengaberik*** egongo (*Izengabea,* badakizuenez, Samuel Beckett-en eleberri baten izenburua ere bada). Ondorioz, ***multzo eraikigarriak baino ez dituen erregistro nagusi honetan onartzen den tesi bakarra zera da: mundua definigarriak edo hierarkizatuak dauden gauzez ezagutu daiteke, soilik eta bakarrik, alegia, mundu hertsi batez ari gara*** eta, beraz, eraikigarritasunarena ez da nozio kuantitatiboa. Handi ala txiki, osatzen duenaren barne-konposizioaren arabera, mundua hertsia baita, berez.

-III-2

Alternatiba baten bila, baina, posible al da onartzea multzo eraikigarriak soilik existitzen direla? Bada Kurt Gödel, XX. mendeko logikorik handiena izan zenak, eta eraikigarritasunaren kontzeptua asmatu zuenak, dauden multzo guztiak eraikigarriak direla onartzea ez zela kontraesankorra frogatu zuen, birtuosismo osoz — nahiz eta kontraesankorra ez izateak ez du esan nahi egia denik. Baina egoera eman bateko nagusiek «dena eraikigarria da» esaten dizutenean ez da arrazoirik gabe, ezin baitzaie besterik gabe erantzun: «Ez, ez, hori ez da egia» are gutxiago "dagoeneko" hor jada badagoen ez-eraikigarriren bat erakutsiz-edo! Nagusien baieztapena gezurtatzeko zerbait sortu behar da. Ez jada badagoena, zerbait berria baizik. Kontua, izan, ez baita eraikigarriaren legearen arabera lehendik dagoen egoeran 'berria' den zerbait aurkitzea.

Gödelek multzo eraikigarrien teoria matematikoaren bidez definigarria dena frogatu izana azpimarratzekoa da: multzoen teoria orokorrari «dena eraikigarria da» axioma gehituz gero, teoria ez da erortzen. Dena eraikigarria da, hala diote nagusiek, haien asmoa ez baita posiblearen sistema orokorra hondatzea. Eta, izan ere, esperientzia konkretu kontaezinak daude, egon, eraikigarriak besterik ez direnak - edo finituak zentzu sakonean.

Eta bai, Gödelek modu zinez sinesgarrian erakutsi zuen hori. Baina ondoren gertatuko zena sobera interesgarria izan zen, halaber. Eta izan zen dendena eraikigarria den matematikena, izan ere, “errazena” ikuspuntu jakin batetik (ez dago izendaezinik, ezerk ez du ertzetara ihes egiten, dena dago sailkatua, izendatua, erregistratua, dena da eraikigarria...), ba zer eta matematikariek ez zutela nahi. Eraikigarritasunarenak ez zituen matematikariak liluratu. Ia inor ez zen eraikigarriaren paradisura sartu. Horren ordez, galdera hau planteatu zuten: Gödelek dauden multzo guztiak eraikigarriak direla onartzea ez zela kontraesankorra frogatu zuenez, ezin al da frogatu, modu berdinean, nolabaiteko eraikigarri-ezinak ere badaudela onartzea ez dela kontraesankorra? Erronka itzela sortu zuen honek: ez-eraikigarri batzuk sartu eta onartu nahi badira, orduan, definigarria ez den zerbait «eraiki» beharko baita, halaber, lengoaia sistema nagusitik ihes egiten duen zerbait, hain zuzen. Hamarkaden zehar arazo honek matematikak sorginduko zituen: nola frogatu ikuspuntu nagusitik eraikigarria ez den zerbait egon daitekeenik? Ez-eraikigarria dena eraikitzeko behar edo inperatibo hori ezinezkoa baitirudi.



4. Irudia: ***Berrabiarazteak dagoenaren munduko mugak gainditzeko baliabidea da, dagoen mundu finitu eta definigarrian eraiki daitekeenatik edo eraikigarria denaren harago unibertso generiko berri bat, halabeharrez ezegonkortasun iraunkor batean garatzeko aukera berriak sortzen dituena, definigarri berriak azmatzea barne. Aukera eta esfortzu etikoa berrabiarazteko puntuari leial mantentzea da: bada zerbait definitezina, dena ez dago estaldura eta espetxeratzea figura finitu batean. Puntu zehatz batean multzo infinitua garapenerako zabalik geratzen da.***

Baina nire ustez, hau da, zehatz-mehatz, sorkuntza orok eta modu unibertsalean aurre egin beharreko arazoa: ***nola eraiki ikuspuntu nagusitik eraikigarria ez den zerbait?*** Hau alderdi iraultzaile bati buruz aritzerakoan gertatzen dela esan daiteke, baina baita hasierako pintura kubista bati buruz, Schönbergen lehen lan dodekafonikoei buruz edo Galoisen teoriari buruz. Adibide hauetan guztietan, eta beste askotan, dagoen ordenaren ikuspuntutik, hain justu, eraikigarria ez den zerbait sortzen da, hau da, azken finean estali ezin daitekeen zerbait sortzen da, eraikigarriaren azpian lurperatu ezin den zerbait, aldez aurretik eraikigarria ez dela baieztatu delako. Hara hor, bada, sorkuntzaren misterioak. Sorkuntza beti dago ezkutatuta eraikigarriaren eta definigarriaren formakoa ez denaren inguruan. Eta, aldi berean, lehendik ada badagoenarekin lan egin behar da. ***Mundua gainditu daiteke, baina mundu honen barnetik gainditu daiteke bakarrik***. Asmatzen diren prozedurak maileguan zer edo zerk hartu behar dute, halabeharrez, definigarria den ingurunetik. Ingurune definigarri hori bihurritu eta maniobratu egin beharko da, uko egiten dion zerbaitera iristeko. Ikuspuntu honetatik, ***asmakizun oro, nolabait ukatu egiten da ekoizten den mundutik***. Ez da bakarrik onartzea zaila delako. Ukatu egiten da, munduaren lege immanentea inperioarena delako, eraikigarriaren aginduan errotua.

Azkenean Paul Cohenek aurkitu zuen bidea: hierarkia eraikigarri batekin ez datozen multzoak, berez eraikigarriak ez diren multzoak, alegia, onargarriak direla frogatu baitzuen. Eta multzo horiei ***generiko*** izena eman ziela guztiz nabarmentzekoa da . "Generiko" hitz honek historia luzea du. 1844ko *Eskuizkribuak* lanean, Marxek proletalgoa izendatzeko erabiltzen du. Proletalgoa gizateria generikoaren irudikapena dela dio, gizateriarena bere osotasunean eta bere horretan, esklusiboki «gizateria» denaren errepresentazioa bera, hain zuzen, gizarte zehaztu batek inposatzen duen ordena definigarrian sartzen ez dena. Marxek, hemen, gizateria gizateria generiko gisa ulertzen du: gizateriarena existentzia generiko gisa ulertuta gizarteak beti inposatzen dion figuran kodifikatuta edo aldez aurretik kodifikatuta ez dagoena da. Klaserik gabeko gizartea ere bada, izan, baina Marxengan generikoaren arazo honek zera da erakusten duena: proletalgoa bezala ulertzen zuena gizarte burgesaren puntu eraikiezina da: dagoen edo existitzen den puntu ez eraikigarria. Egon badago, izan ere, jendea hor dago, egon, baina gaitasun subjektibo gisa zer edo zer zen, puntu bat alegia, zegoen ordenak eraiki ezin zuena, are eraikitzerik posible zela imajinatu ere ezin zuena. Ez dakit zuzeneko filiaziorik egon zen ala ez –ez dut uste, dena den–, baina esan daiteke Paul Cohen-ek "generiko" hitz zahar hori berraurkitu zuenean ez zela proletalgoari dagokion edo immanentea zaion gizatasuna izendatzeko, gizateria kanpoko propietaterik ez duen multzo eraikiezin gisa ulertzeko baizik.

Eta, beraz, egoera honetan aurkitu ginen: ***dena eraikigarria dela aldarrikatzea posible da; baina berdin deklaratu daiteke ezetz, edo egon badagoela zer edo zer eraikiezina dena***. Eta zer egin, orduan, horrelako egoera batean? Bada ez dago besterik: ***aukeratu egin behar da***. Ezin dira biak ala biak aldi berean esan. Matematikariak eraikigarritasunaren axioma bere gain hartzen ez badu, ezin da

izan koherentzia arrazoiengatik. Asumitzea edo aurresuposatzea sinpleagoa da eta koherente dirau, halaber. Eraikigarriaren eremuan ez kokatzea erabakitzen badugu, ez-eraikigarriaren eremuan kokatzea interesgarriagoa iruditzen zaigulako da, besterik gabe. Baina zergatik gero Intereresgarriagoa? Bada, ***eraikigarria ez dena onartuz gero, estali ezin den zerbait dagoela onartzen dugulako***. Egon badago estalita ez dagoen muin bat generikoa dena, modu jakin batean, eta, beraz, eraikigarriaren eremutik guztiz eta errotik at dagoena. Ez da eraikigarria, eta beraz, ez dago definigarriz osatuta. Nonbait, leku batean, badago zer edo zer, definiezina dena edo definigarria ez dena.

Hemen, ondorioz, berrabiarazte edo abiarazte berri batez hitz egin genezake, mugaren gainditzea ekarriko duena nahitaez. Egonkortuta badago ere egon badago aurkitu den eta agerikoa den puntu bat, edozein kasutan gehiegizko puntu bat edo *eszesoan* dagoen puntu bat dena; eta beste zerbait eraikitzeko puntu honetan fida gaitezkeen heinean, berrabiarazte bat dela esan genezake, baita definigarritasunaren beraren definizioa aldatzeko gauza dena ere. Orain gauzak definigarriak direla terminoaren zentzu zaharrean esaten dutenez gain zentzu berri batean definigarriak direla ere esan baikenezake. Egon, beraz, definigarria hitzaren zentzu zaharra dago gehi estali ezin den puntu edo definizio berri hau eta, ondorioz, definigarria den unibertso berri bat eraikitzeko moduan ere bagaude, ez soilik definigarriarekin talka egiteko. Entitate generiko berriak gehitzea nahikoa da eta, nolabaiteko ezegonkortasun iraunkor baten bidez, barrutik landuko dira definigarri berriak.

Horixe bera pentsatu zuen Marxek, proletalgoa iraultzaren euskarri zen generiko gisa antzemanez. Den-dena propietate emanen arabera definitzen eta hedatzen den gizartearen barruan, hierarkia soziala eta abar, proletalgoa generiko gisa estalduraren ikuspuntutik atzeman edo tapatu ezinezko zerbait da. Eta «zerbait» hori, hain zuzen, puntu edo generiko honen inguruan gizarte osoa berrantolatzeko printzipioa bihurtzen da: proletalgoa disolbatu eta desagertu egingo da, azken finean existitzen dena gizateriaren generikoa delako. Proletalgoak gizateria osoa generiko bihurtuko du, posizio sozial hierarkikoen arabera sistema zehazten zuen aurreko sistema guztiz atzean utziz.

Beraz, hau da gorde behar duguna: ***egon oinarrizko aukera bat badago egoera konkretuetan agertzen dena.*** Matxinada baten edo beste zerbait berri baten aurrean aurkitzen garen bakoitzean sortzen zaigun aukera da, eta, ondorioz, bai, zenbait arrazoi (x) direla-eta estalduraren logikak gogor egingo dizu aurre. Ikuspuntu honek, bestalde, ***gertakizun*** edo *akontezimendu* bezala deitu eta ulertzen ditudanen alde bat laburbiltzen du. ***Gertakizun baten funtzio bat –matxinada batena, sorkuntza batena, etab.– hautu hori argitara ekartzea da.*** Gertakizun bat eskatzen duen erabakiaren bidez definitu daiteke, gertatzen denari dagokionez eraikigarriaren barruan geratzea edo bertatik irtetea. Bestela esanda, gertakizunak generikoa denarekin bustitzea dakar – baita denbora luzez zerbait zehaztu gabea denean ere, edo gaizki definitua eta ulergaitza, izan ere, generikoa denez ezin delako sailkatu, definitu, sistematizatu, eta abar.

Ziurtasun-ezaren koefiziente gisa antzemandako konpromiso hori proletalgoaren oinarrizko kalitatea zen, nahiz eta geroago galdu egin zen, zalantzarik gabe. Proletalgoa, hain zuzen ere, aldi berean zen etorkizunaren promesa eta bazegoen gizartearen mamua biak ala biak batera, gizartean bertan edo gizartearen bidez eraikigarria edo definigarria ez zena. Eta beharrezkoa da politikak hori zaintzea, generikoaren politika izaten jarraitu nahi badu. Dena birdefinitzen badu, dena birklasifikatzen badu, ordena eraikigarri bat beste batekin ordezkatzen baitu soilik ---*eraikigarritasun erlatiboa* deitzen dena. Multzo hutsetik hasten den eraikigarritasun orokor bat da, eta "proletalgoa" horrela ere ulertu daiteke – generikotasun bakar eta hertsi batean itxita amaituko duena, ondoren, itxiera honetatik abiatuta, beste unibertso definigarri bat eraikiz. Eta horrela da geratzen den errealitate berri bakarra Estatua dela: «Estatu proletarioa» definigarritasunaren beste mota berri bat berregitea baita, neurri handi batean, eta, ondorioz, noski, mugimenduan egotearen izaera generikoa eta gizaterian desegiteko bere ahalmena galtzen ditu --- gizateriaren zehar bere osotasunean zabaltzeko ahalmena galtzen du, hain zuzen, non lengoaia nagusiaren eraikuntzak eta menpekotasunak disolbatu egin beharko lirateke.

Honek guziak frogatzen du gertakizun bat oso sinplea baina, errealitatean, oso konplexua den zerbaitekin erlazionatu daitekeela, nahiz eta formalki oso sinplea izan: azken finean, ***oinarrizko aukera oro beti da puntu batean generiko(tasun) bat onartzeko aukera***. Horretaz erabat sinesten dut. ***Gertakizuna zerbaitek lengoaia nagusiaren aginte-sistematik ihes egingo duela onartzea da***. Baina hori egiten baduzu, neurri batean zuri ere ihes egingo dizu, zu ere lengoaia nagusian zaudelako! Eta, beraz, ahalegina ***generikotasuna prozesu bat bezala onartzea da***, baina norberak hortik ondorioak ateratzean aurreko definizioekin ahulduta edo anestesiatuta geratu gabe.

Uste dut Gödel-Cohen antinomia hau (zinez antinomia ez zena, biak ala biak ados zeudelako eraikigarriarekin desatsegintasuna erakutsiz, eta Gödel, gainera, oso pozik zegoelako beste aukera bat bazegoela ikustean) baina, dena den, antinomia

hau, pentsamendu-askatasunaren formalizazio miresgarria dela uste dut, oraindik ere. Zuzenean aukeratzera behartzen baikaitu, baina aukera ez dago preskribatuta eta ez da, izan, preskribagarria ere, koherentea denik ezin delako aldarrikatu. Esan daiteke: "eraikigarria hobe izaten dirau aukera argia eta egonkorra delako --- lengoaia bere elementuan dagoen neurrian"; eta esan daiteke: "generikoa izugarri erakargarria da, abentura eta tirabira esan nahi duelako eta dagoen lengoaiaren zein definizioen euskarriak lehertzen dituelako". Egia esan, eztabaida iraunkor bat da, giza existentziaren maila guztietan eragiten duena. ***Existentziaren bihurguneak halakoak dira, non askotan erregistro batean zaude gauzen alde bateri begira eta guztiz beste erregistro batean gauzen beste aldeari begira, biak ala biak batera:*** ez da banaketa global edo sistematikoa. Matematikariek bere sakontasunean ikusi zuten hori, eta puntu existentzial nagusi bat da, azken finean, oinarrizko aukera bat dagoelako: ***Eraikigarritasunaren ordenan hartuko al dut nire lekua, hau da, definigarriaren ordenan? Aldez aurretik kokatua izatera eta egotera laburtuko da nirea?*** Definigarriaren muga nonbait kokatua izatea baita; hor zaude, zure atributuak dituzu, zure izena... eta berdin inguratzen zaituen guztiarekin ere. ***Edo kokatu ezin daitekeen zerbait hartuko dut nire gain? Hori baita generikoa:*** bere izenari, bere izaerari, eta baita bere mamu-itxurako izateari ere dagokionez ***ezegonkorra den zerbait***. Oso zaila delako, adibidez, bi multzo generiko elkarrengandik bereiztea. Definizio egonkorrik ez dutenen heinean, antzekoak dira. Eta, beraz, ***guztiz desberdina eta guztiz berdina aldi berean gure gain (on)hartu behar dugu***. Hori aski ezaguna da burkideen arteko konpromiso politikoetan, amodiozko harremanetan eta antzeko ekimenetan. Maitasunaren interpretazioaren historia intelektual osoa maitasunean hain izugarria denaren inguruan izan da beti: Bi daudela eta Bat dagoela; edo bestela estate arren: maitasuna *à la* Gödel eta maitasuna *à la* Cohen.

Laburtuz, bada, **pentsamendu bakoitzak oinarrizko aukera bat du**. Pentsamendua librea da, beraz, zentzu sakonean, eta ez nahi dena esan daitekeelako, hori axola-gabetasunaren askatasuna baita, interesik gabeko edozein astakeria esateko askatasuna den heinean.

-III-3

Demagun, hortaz, orain ez-eraikigarriaren alde egotea aukeratu duzula, arrazoi bategatik edo besteagatik. Baina horrek zer esan nahi du? Zeintzuk dira ondorioak? Multzo ez-eraikigarria aurrean izatea ez dela saihestezina azpimarratzen baitut, multzo ez-eraikigarria ez baita edonon aurkitzen, eraikigarria ez bezala, aurkitzea erraza dena. Horrela, zure aukera oinarrizkoak forma hau har dezake: egon badaude eraikigarriak ez diren multzo batzuk. Baina zerk gauzatuko du hori? ***Eraikigarriaren aldekoa, izan ere, aukera argia delako: lengoaia nagusiarekin bat ez datorrena ez da existitzen***, eta kitto. Generiko ez-eraikigarriari dagokionez, berriz, bai, existitzen dela baieztatzen da, baina zer esan nahi du horrek? Gauza ez baita gaiari buruz esamesak egitea, izen batzuk aurkitzea, etab. ***Generikoa, funtsean, ezarritako edo dagoen ordenaren arabera definitzen ez den berritasun bat badagoelako ideia da***. Eta egia esan, ***hor infinitua ukitzen da, benetan***. Azken batean, infinituren bat badela baieztatu behar baita – infinitua zentzu zehatzean, hau da, ***infinitu ez-eraikigarria***. Beraz, baieztatu egin behar da eta, ondoren ikusiko da –munduaren ideia landuz– ea funtzionatzen duen, egiaztatzen den, eraikitzen den, etab. Ondorioz, ***subjektibotasun ez-eraikigarriak edo bestela esanda, subjektibotasun generikoak infinitu ez-eraikigarri baten existentzia aintzat hartzen duela aurresuposatzen du***, izan, errealaren eremuan landu beharko den aurresuposaketa edo hiipotesia dena. Ez da, hortaz, aurresuposaketa inerte bat. Infinitu ez-eraikigarri baten existentzia subjektibitate generiko baten bitartez eta bidez aurresuposatzen baduzu edo asumitzen baduzu, horrek esan nahi baitu infinitu ez-eraikigarri hori arretaz zainduko duzula, alegia, estaltzeko edozein saiakeraren aurka defendatuko duzula, erraz definigarria dena salatuko duzula, ordena dagoenetan mantentze aldera diseinatutako eraikigarritasun-adierazpenen jarraipena egin beharko duzula, eta abar.

Eta hori guztia lan gogorra da, pentsamenduaren ordena guztietan. Baina ez duzu lan hori egingo hori egiteko oinarrizko aukerarik ez baduzu aurretik hartu, hau da, modu batean edo bestean benetan eraiki ezin den infinituren bat dagoelako aurresuposaketaren alde egin ez baduzu. Eta horri ***Ideia*** deitzen diot nik. Eta edozein dela aukeratu ideia mota hori, ***Ideia bat beti da unibertso potentzialki generiko baten existentziaren aurreikuspen infinitua***. Infinitu mota honek, horrela, ordena nagusiaren aurkako zerbait benetan egon daitekeela frogatzen lagungarria suertatuko zaizu.

Puntu honetan, matematikariek lan izugarria egin dute. Infinitu mota batzuk existitzen direla frogatu dute, eta infinitu horiek existitzen direla onartzen bada, beren existentzia soilak unibertsoa eraikigarria ez dela egiaztatzen du. Beraz, ***matematikariek Ideiak duen indarra erakutsi dute***, nolabait. Eta infinitu mota honetan sinesten baduzu (infinitu ez-eraikigarri bat existitzen ez denik ezin denez frogatu), ez-eraikigarria edo eraikigarria ez den zerbait badagoelako testigantza emango dizu. Erakutsiko dizu unibertsoa bere osotasunean ezin denez eraikigarria izatera murriztu, horregatik bakarrik hala-

ko infinitu bat nonbait existitzen dela. Horrenbeste, bada, frogatua dago, dagoeneko. ***Nahikoa da zehaztutako infinitu mota jakin baten existentzia baieztatzea unibertsoa ez-eraikigarritasunaren aukeraren alde erabat iraul dadin.***

Nire ustez, ***hau jarraibide existentzial guztiz nabarmena da***. Esan nahi du Ideia bat baduzu eta ideia horri benetan eusteko egoeran bazaude (bere existentzia baieztatzen duzula esan eta aitortzea dakarrena eta, horrela, ideia hau nonbait errealaren zati txiki batean instalatzea lortzen duzula) bada, orduan, mundua eraikigarria bakarrik denatik harago mugiarazteko aukera ederra izanen da. Baina ideiarik ez baduzu, ez da erraza izango eraikigarria dena alde batera uzterik. Horrenbeste argi dago.

Froga matematiko honen lehen forma Scott matematikariak aurkitu zuen, zera dioen teorema batean: “multzo neurgarri” bat existitzen bada (oso gaizki izendatua, bide batez), orduan unibertsoa ez da eraikigarria, eraikigarria ez den zerbait baitago. Hau kezkagarria zen eraikigarriak eta ez-eraikigarriak direnak unibertso osoari buruzko arazoa ikusgarri egin eta erakusteko gauza izan zen neurrian. Dena eraikigarria ala dena ez-eraikigarria ote den galdera bera unibertso osoaren oinarriko ezaugarri bati buruzkoa zela zirudien; hemen, berriz, Scotten teoremarekin lekuko bat, hala esan badaiteke, egotea nahikoa izango denean, konfigurazio oso partikular bakar batek, edo propietate batzuk dituen multzo batek eraikigarriaren teoria osoa segituan baztertzeko.

Dena dela zera uste dut: asmakizun bat, berritasun bat, sorkuntza bat errealean gertatzen denean beti da norbaitek, nonbait, Ideia bat duelako. Ideia bat zentzu indartsuan, hau da: ideia hori existentzialki baieztatzen dute. Euren bizitzarekin babesten dute, euren sorkuntzekin, egiten dutenarekin, eta euren existentzia bera gauza hau egon daitekeenaren inguruan antolatzen dute, euren existentzia Ideiak berak baieztatzen duelarik, hain zuzen. Kasu horietan, Scotten teoremak dionaren egoeran gaude: existitzen bada batek existitzen dela esateko, edo beste batzuk existitzen dela-eta trufa egiteko, edo ondorioak dituelako, eta abar, bada, orduan, esan nahiko du unibertsoa ez zela soilik esaten zen bezain eraikigarria. Eta, beraz, esan nahi du, baita ere, estalduraren, menderakuntzen, eta ordena sostengatzeko bestelako mekanismoen indarra zertxobait, behintzat, murriztu egin dela.

Eraikigarriaren teoria formalaren eta estaltzearen oztopoari buruz esan berri dugun guztiaren arteko lotura sinbolikoa harrigarria da, guztiz. Ideiari, eta doakion infinitu motari, tinko eusten badiozu, horrek esan nahi baitu baliabideak dituzula estalduraren aurka egiteko, eraikigarriak den-dena estaliko duelako aurresuposaketaren pean irauten baitu soilik. Estalduraren eremutik ateratzeko, Ideia bat izan behar da, nik ematen diodan zentzu zehatzean: ***Ideia bat unibertsoa eraikigarria ez izatearen ondorioa izango duen existentzia mota posible baten aitorpena da***. Hau eraikigarria ez den zerbait kasualitatez topatzea baino guztiz ezberdina da. ***Munduaz dugun pertzepzioa berregiten duen lan gogorra da, pixkanaka zure Ideiari koherentzia ezartzen dioten bideak aurkitzea***. Cohenek erakutsi digunez koherentea dela jakinaren gainean egonda, zure baieztapenean ez da inolako kontraesanik izango: ***Existitzen dela aurresuposatzen baduzu existitzen da***. Agian ez duzu ezer aurkituko. Baina teoremak dio normalean zerbait aurkitu beharko zenuela. Zeren zure Ideiarekiko korrelazioa existitzen bada, orduan, unibertsoa ez da berez guztiz eraikigarria eta estaldura bera mugatu egin daiteke.



Aipamena: ***Asmakizun bat, berritasun bat, sorkuntza bat errealean gertatzen denean beti da norbaitek, nonbait, Ideia bat duelako. Ideia bat zentzu indartsuan, hau da: ideia hori existentzialki baieztatzen dute. Euren bizitzarekin babesten dute, euren sorkuntzekin, egiten dutenarekin, eta euren existentzia bera gauza hau egon daitekeenaren inguruan antolatzen dute, euren existentzia Ideiak berak baieztatzen duelarik, hain zuzen.***

-III-4

Guzti honetatik, **oinarrizko etika** bat atera dezakegu, gure ondorio gisa balioko duena: baieztatzen den Ideiarekiko ardura eta erantzukizuna hartu behar duzu; aurkikuntzan parte hartu; horrela finitutasunetik zure burua askatuz; eta pentsamendua benetako infinituari irekiz. «***Ideia bat zure gain hartu behar duzu***», hau da, ***gure mundu garaikidearen oinarrizko tesiaren aurka egin behar duzu***: ***«Ideiarik gabe bizi!» inperatiboarena, hain zuzen, atzekaldean estalduraren doktrina oso bat daukana***. Horixe baita “ideologien heriotza” itxuraz anodino eta are ‘aurrerakoia’ren atzean ezkutatzen dena. Ideologien heriotzak zera esan nahi baitu: “Gozatu (ahal baduzu) Ideiarik gabeko bizitza. Araua

gozatzea da, ahal bezain beste gozatzea. Eutsi tente merkatu planetario handiaren aurrean, erosi zerbait ahal baduzu, bikaina izango da, eta, bestela, ezin baduzu, ez ezazu gero gure izpiritua zure ideiekin lotsatu». Ideiarik gabe bizitzeko mundu garaikidearen inperatiboak estaltzeko doktrina oso bat dauka atzean, iraganeko Ideia bakoitza hemen azaldu dudan metodoarekin estali baitzen. Beraz, ***lehen puntua Ideia bati eustea da: Ideia politiko bati***, jakina, ***baina hori baino gehiago da, handiagoa***. Esan nahi du: ***jarri zure existentzia zure Ideiari amore emango ez diozun seinalearen azpian, hau da, infinitu mota baten eraginpean***. Eta, horrela, generikoarekin topaketa gertatu balitz bezala arituko zara, azken finean. Hau da, unibertsoa zuretzat eta zure ingurukoentzat jada ez dela eraikigarria gertatu egingo da.

Laburtuz, bada, horrela da, izan, guzia nola ulertzen dudan: ***“Beti hartu Ideia zure gain”. "Parte hartu aurkikuntzan”.*** Jakina, Ideiaz armatuta, esku hartu dezakezu eta estalkiak desegin ditzakezu. Estalkiak prekarioak baitira norbaitek Ideia bat duen momentutik. Horrenbeste ziurra da. Eta horren adibide konkretu asko daude, baita bizitza arruntean ere. Bizitza izan daitekeen, edo den, finitutasunaren eta Ideien artean, badago, egon, bide bat, oinarrizko lehen aukera baten bidea dena (“Ni Cohen naiz”).

“Ireki pentsamendua benetako infinitura”: esaldi horrek dena sintetizatzen du. Sintesiak atzera begira frogatuko du infinitua konstruktibismo jakin bati lotuta dagoela beti. ***Infinitua beti da norberaren burua estaltzen ez uzteko indarra izatea; beti da Ideiari eustea***; beti da, horrela, finitutasunetik (partzialki, inoiz ez guztiz) askatzea; eta ondorioz, norberaren existentziaren zati batetik sorkuntza bat egitea da. Ideia bera absolutizatua balego kimera bat izango litzateke. Baina norberaren existentziaren zati batetik ziur sorkuntza bat gertarazi daitekeela. Estaliko ez den sorkuntza bat, estaliko ez den erara zainduko duzulako.

Itzulpena: IG - 2024